

Ixabel Etxebarria

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Neurri berriak prestatzen omen!

Neurri berriak prestatzen zituztela eta berehalako emaitzak ekarri dituzte. Hasteko, kostaldeko UPMko diputatu eta Urruñako Daniel Polou auzapez ohia hiru bizkartzainekin dabilela ikusi dugu. Ikusi dugu antolaketa berriaren lehen neurri politikok ak ukan dituela. Heldu diren martxoko herri hauteskundeetan mehatxatua dela ozenki erranen digu eta abertzaleak oso lanjerosak garela aldarrikatuko. Beldurraren hedatzea aski eraginkorra izaten da hauteskunde garaian. Diskurtsoa baliatuko du, erretorika. Irudimena beharko du. Ahaleginduko dela dudarik ez dago. Frantziako Asanbladako azken hauteskundeetan ezkerak Urruñan irabazi zuenez, alkatetzaren berreskuratzeko lan egin beharko du!

Neurri berri horietan *Sud Ouest* egunkariaren laguntza izan dezake. Hasteko, artikulua oso partziala plazartu dute igandeko azalean: “Kale borroka gazteentzat talde armatuan sartzeko lehen urratsa dela” diote. Heldu diren asteetan pentsa dezakegu –beste aldizkari batzuetan Hegoaldean askotan praktikatu den gisan– lerroen artean adieraziko digutela ikastoletan ematen zaiela lehen formakuntza. Hegoaldean gurasoek haurrak beldurrez sartzten dituztela ikastoletan diote halaber, ez dute erraten hizkuntza ofiziala dela. Eta bukatzeko oso adierazpen sinesgarriak emanak dira –iduriz aditua den



GAIZKA IROZ

Dominguez baten liburu batetik hartuak-antolatutako formakuntza-entrenamendu ikastaldi batzuei buruz. Bunkerra aipatzen zaigu, Afganistanen zulatu zuten galeria erraldoien antzekoa, paralelorik ez dute egiten baina ulertzen dugu. Gertatzen da, ez kasu batean ez bertzean, ez dela sekulan horrelakorik aurkitu. Iparaldeko herri batean gertatzen omen dira entrenamendua eta bunkerra. Horrela balitz, harritzekoa da oraindik deus atzeman ez izana informazio eta errepresio lanetan dabiltzan polizia gorputz guztien artean! Gezurra oso merke ateratzen da, ez baitu egunkariak ondorio txarrik jasanen. Agintarien alde agertzea aldiz kazetariarentzat eta *Sud-Ouest*eko nagusiarentzat promozio eta etekin aukera izan daiteke.

Neurri berriak datoz. Gezurak abangoardian igortzen dituzte hauteskiak babesturik. Besteendako ez da babes legerik izango. Errepublikak eta Monarkiak interes komunak dituzte bi estatuetan prestatzen ari diren hauteskunde hauen bezperan. Euskal Herria Bai ekimena eta herrietako taldeak lanean hasiak dira herri eta kantonamendu guztietan abertzaleen aurkezteko. Erronka da emaitzetan igotzea, gaitasuna dugulako. Sinesgarri eta esperantza emaile bihurtu gara Parisi begira bizi diren alderdi horien ondoan. Neurri guztiak baliatuko dituzte horren suntsitzeko. ■

« Errepublikak eta Monarkiak interes komunak dituzte bi estatuetan prestatzen ari diren hauteskunde hauen bezperan »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Berri. Etengabea, ziklikoki, bizi arazten diguten egoera. Eta beti hauteskundeak atzean, bi alderdi handien arteko lehia aldagaitza. Nor baino nor horretan ezker abertzaleko zati azkarrena dute pagotxa, azken minutuan garaipena emango diena. Saskibaloia dute sistema, lehen hiru urteak elkarri saskiratze berdintsutan aritu ondoan, azken laurdenerako gordetzen dituzte indarrak arerioa garaitzeko. Oraingo honetan ANV dute baloi. Almazenean zituzten *Egunkaria*, Xaki, *Egin*, Ekin, 18/98 eta asmatu lirakeen gainerakoak aski ez, eta agintean dagoen PSOERI ANVa zulatuko balitzaio, ordezkoa ere pre-

Zaharrak

to daukala erakutsi du. Garai bateko militanteak, munduan zehar bortxaz barreirazi zituztenak estraditatzeko estrategia martxan du. Laurogeigarrengo hamarkadan jokaturakoaz nahi du irabazi orain ere. Begirale dezente du tranparen lekuko, beren lekuak galdu nahi ez dituztenak. Dagoeneko baloi berriz hasiak ditugu entrenatzen Pauen. Eta aldeko txaloek ez dituzte uzten entzuten aurkakoen txistu hots herabetiak. Eta kanpoan hotz egiten du. Ipar haizeak jotzen du eta euri jasa kazkabartuek min ematen dute. Orain arteko guardasolak airean, jada ez dute balio. Jokatu nahi genuke, baina ez dugu jokalekurik aurkitzen. Eta berenean baloiarena egiteko ez gaude prest. ■